

ZIKLO-KROSA. Asteburu honetan jokatuko dira Zolderren (Belgika) Munduko Txapelketak, etxekoak faborito



EPA
Mario DeClerq, 1999ko Munduko Txapelketan. Urrezko domina irabazi zuen orduan.

Zein belgikarrek irabaziko du?

Sven Nijs, Erwin Vervecken, Mario DeClerq eta Bart Wellens dira iganderako faboritoak

Xabier Usabiaga | **ZOLDER (BELGIKA)**
Berriemaile berezia

Keniarrek krosarekin duten arazo berdina dute belgikarrek ziklo-krosarekin: selekzioa egitea zailagoa da Munduko Txapelketa irabaztea baino. Atletak beltz eta zurien arteko diferentzia adinakoa da aurten belgikarrek beste herrialdeetako txirrindulariekiko erakutsi duten nagusitasuna. Belgikarrik onenek parte hartu duten probetan salbuespena izan da belgikarra ez den beste norbaiten garaipena. Datuak esanguratsuak eta deigarriak dira. Munduko Kopako proba guztietatik bat ez beste guztiak, txirrindulari belgikarrek irabazi dituzte. Txapelketa bereko lehen hiru sailkatuak belgikarrek dira eta gauza bera gertatzen da UCIko sailkapenean, non belgikarra ez den lehen ziklista bosgarren postuan dagoen (Richard Groenendaal holandarra). Baina badira datu are harrigarriagoak. Munduko Kopako hirugarren proban, Belgikan jokatu zena hain zuzen ere, lehen hamar sailkatuak, hamar, belgikarrek izan ziren. Txirrindularitzaren historian ez da inoiz halakorik gertatu. Eta, honez gero, txirrindulari belgikarren nagusitasun zapaltzailearekiko inork zalantza zi-

EUSKAL TXIRRINDULARIAK

Betiko legean

Marka da baina euskaldunak betiko moduan gaude Munduko Txapelketa hauen atarian, ez atzera, ez aurrera. 1996an Gaizka Lejarretak Motreuilen (Frantzia) lortu Junior mailako zilarrezko domina alhora utzirik, 20 urte baino gehiago dira euskaldunek postu duin batekin amesten ez dutena. Egia esan ez dago arrazoirik itxaropenerrako.

Parte hartuko duten bederatzi euskal txirrindularietatik, David Seco busturiarra izan daiteke ezusteko txikiren bat eman dezakeena. Besteek amaitzearekin badute nahikoa lan. Seco baina, inoiz baino sasoi hobean helduko da Zolderrean. Orain hamabost egun Muxikan Daniele Pontoni menderatu izanak kon-



XOUSE SIMAL
David Seco.

fiantza handia eman dio Busturiar txirrindulariari, eta aurreko igandean, Ispasterren Pontonik menderatu zuen arren, ez zion alde handirik atera. Ordea, Pontoni bezalako asko topatuko ditu Belgikan, eta irteeran gehienak aurretik izango dituenek, seguraski, baita helmugan ere, izan ere, Davidek ez du Munduko

Kopan postu onik eskuratu, Igorrekoa salbu, non hamabigarren sailkatu baitzen, eta irteeran kokapen txarra izango du, atzeratua.

Txapelketen lehen bi karre-rak gaur jokatu dira. Estreinaldia Juniorren probak emango dio 11etan, eta Xabier Goenaga, Onatz Munduate eta Asier Corchero izango dira bertan. Sub-23 mailako karrera 14.00etan jokatu da eta beste hiru euskal ziklista izango dira norgeiagokan: Haitz Ortiz, Julen Zubero eta Egoitz Murgoitio. Igandean jokatu dira beste biak, Emakumezkoena eta Eliteena. Lehen 11.00etan hasiko da eta historian lehenbizikoz euskal parte hartzaile bat izango da, Nekane Lasa. Proba nagusia 14.00etan jokatu da bertan David Seco eta Zugaitz Ayuso izango direlarik.

pitzik izango ez duen arren, hona hemen, eztabaida amaitzeko azken argudioa: Belgikak, berak bakarrik, dituen UCI puntuak (bost ziklistik onenen puntuak batzen dira), atzetik dituen

beste lau herrialdeetakoak batura baino (Holanda, Txekia, Suitza eta Frantzia) gehiago dira.

Orain arteko ikusitakoak ikusi, zaila, ia ezinezkoa izango da,

Zolderko barruti ezin azkarra-goan Sven Nijs, Mario De Clerq, Ervin Vervecken, edo Bart Wellens ez gailentzea. Jakimin bakar-ra, horiek guztietatik nor nagusituko den jakitean datza.

EUSKAL ZIKLISTAK

ELITEAK

DAVID SECO: 28 urteko busturiarra sasoi betean helduko da aurtengo zitara, baina, beharbada hori ez da nahikoa izango bere helburuak bete-tzeko, 15 aurrenekoetan sailkatzea. Irteeran izango duen kokapen atzeratuak, eta, hotsak, bertan behera zapuztu ditzake bere intentziorik baikorrenak.

ZUGAITZ AYUSO: Munduko txapelketa bi korritu ditu 22 urteko itsasondorak. Indartsua da baina teknika gutxiakoa, eta barruti azkarretan ez da ondo moldatzen. Zail egingo zaio karrera doblatu gabe amaitzea.

SUB 23

HAITZ ORTIZ: Ez zuen ziklo-krosa egiteko asmorik aurtengo denboraldian, baina inoiz baino hobeto helduko da bere bosgarren Mundialera 20 urteko donostiara. Aurten postu duinen bat lortzeko xedea bete behar luke.

JULEN ZUBERO: Gorantz datoreen ziklista da 19 urteko lemoarra, eta hirugarren Munduko Txapelketan hartuko du parte. Orain gutxi gaixorik egon da eta ahuldadetik osatu bada proba amaitzeko ez luke arazo handirik behar.

EGOITZ MURGOITIO: Munduko Txapelketak zer diren badaki 18 urteko abadiñoarrak, iaz hartu baitzuen parte Junior mailan. Amaitzearekin kontent behar luke.

JUNIORRAK

XABIER GOENAGA: Iaz estreinatu zen Munduko Txapelketan eta eskarmentu pittin bat badu, nahikoa izan daiteke karrera amaitzeko.

ONATZ MUNDUATE: Esperientzia berria izango da berarentzat, eta horixe izango da bere saririk onena.

ASIER CORCHERO: Hiru juniorretan ondoen dabilena da azken aldi honetan, ez luke, hortaz, lasterketa amaitzeko arazorik izan behar.

EMAKUMEAK

NEKANE LASA: Munduko ziklo-kros Txapelketan parte hartuko duen lehen emakumea izatearen ohorea bada nahikoa sari.